

## Publikoa birrindu. Pribatua indartu

*XXI. mendeko gurutzada bertan dugu: sistema publikoa akabatatzeko azken borroka. Hiru hamarkada daramatza neoliberalismoak langileon kontrako neurriak hartzen, eta oraingoan, eraso etengabe horrek ahuleziak jota utzi gaituenean, azken kolpea eman nahi du: administrazioei gelditzen zaizkien helduleku apurrak birrindu, botere publikoa botere ekonomikoaren hankazpian behin eta betiko uzteko.*

*Jakina, azken kolpe hau ez dute tanke eta armekin emango. Hori baino azkarragoak dira. Bultzatzen dituzten neurriak hartu daitezkeen bakarrak bailiran saltzen dizkigute. Herrialdeek pilatu dituzten defizit eta zorrek amaitzeko modu bakarra gastu publikoa murriztea omen (soldatei, langileei, pentsioei, laguntza publikoei... egurra). Ezkutatu egiten digute orain bultzatzen diren neurri hauek berek ekarri gaituztela bizi dugun egoerara; eta defizit eta zorrak hein handi batean bankuak salbatzeko emandako dirutzak sortu dituela.*

*Defizita eta zorra. Defizita eta zorra. Defizita eta zorra. Horra etengabe errepikatzen diguten mantra. Baina zein da gure egoera bi totem horien inguruan?*

*ZORRA. Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren zorpetze mailak oso txikiak dira. Europako Batasunak onargarritzat hartzen duen zorra baino hamar aldiz txikiagoa ia. Beraz, arduragabekeria da, gobernuek, zorraren aitzakiarekin, ditugun behar larriak asetzeko diru gehiago ez gastatzea. Are gehiago, guztiz injustua da, gobernuak zorpetzen ez badira gizartea baita zorpetu behar dena. Datu bat: Nafarroako zor pribatua Gobernuaren zor publikoa baino 23 aldiz handiagoa izan zen 2009an.*

*DEFIZITA. Administrazioek diru sarrera batzuk dituzte, eta dituzten diru sarreren arabera sortzen da gastatzeko aukera, edozein etxetan gertatzen den moduan. Gastatzen dena jasotzen den kopurua baino handiagoa bada defizita dator. Biltzen den dirua baino gutxiago gastatzen bada, ordea, superabita.*


*Bada, azken hamar urteotan Hego Euskal Herriko bi administrazio nagusiek superabitarekin itxi dituzte urte gehienak. Eta hamar urte hauetan pilatu duten defizita batzen badugu, datua barregarria da: 170 milioi euro besterik ez (kontuan izan aurrekontuetan 14.000 milioi gastatuko dutela aurreikusten dutela).*

*Zergatik sortu da defizit hori? Gehiegi gastatu dugu akaso? Inolaz ere! Osasun eta hezkuntza gastuetan Europako azkenak gara eta!*

*Arazoa gastuak sortu ez badu, diru sarreretara begiratu beharko dugu, ezta? Ea ba: 2011rako 8.000 milioi euro bildu gabe geldituko direla aurreikusten dute Hegoaldeko administrazioek, onartu dituzten laguntza fiskalen ondorioz. Ikaragarria da kopurua hau (kontuan izan bi administrazioak batuta 14.000 milioi euro inguru gastatuko dituztela). Diru hori guztia jasotzeke uzten dute, nahiz eta inoiz baino beharrezkoagoa izan, bizi dugun egoera larria dela eta.*

*Ikusten denez defizita eta zorra aitzakia besterik ez dira nahi duten politika aurrera eramateko: sistema publikoa birrindu pribatua indartzeko.*

### Gastos fiscales e ingresos reales (% total). Diputaciones Forales 2011



Fuentes: Proyecto de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi 2011


# Gran descenso del gasto público

La principal conclusión de los proyectos de presupuestos del Gobierno Vasco (GV) y del Gobierno de Navarra (GN) es sin duda, el gran descenso de su gasto público. Hay que añadir, además, que esta reducción se suma a la producida en 2010.

Esta disminución del gasto público resulta especialmente perjudicial en la actual situación de crisis, ya que contribuirá a agravarla, a aumentar el desempleo y la desprotección social. En una situación como la actual, en la que en el sector privado se están dando descensos en términos económicos la Administración debiera compensar esta tendencia, aumentando el gasto público. Otra conclusión que se deriva del estudio de los presupuestos es que las administraciones de Hego Euskal Herria cuentan con un amplio margen para poder aumentar el gasto público; podrían obtener más ingresos con unos mayores déficits y una deuda

pública mayor, o reduciendo las excesivas deducciones, exenciones y minoraciones de impuestos, o con un cambio de fiscalidad que posibilite una mayor recaudación (luchando contra el fraude fiscal de las rentas no salariales, y revirtiendo todas las reformas fiscales que han derivado en una menor presión fiscal para las rentas altas y las rentas de capital). Por tanto, la opción tomada por el GV y el GN es la más injusta y la más antisocial de las posibles, ya que hacer recaer la crisis sobre el conjunto de la población, y en especial sobre quienes más necesitan del gasto social. El informe también nos posibilita ver que existen grandes déficits de gasto público en sanidad y educación en Hego Euskal Herria en relación al entorno internacional, déficits que son extensibles al resto de materias sociales, y que evidencian que el esfuerzo y los estándares internacionales a nivel social son claramente mejores que en Hego Euskal

## Gasto público en salud (%PIB). OCDE, 2007



Fuente: OCDE, Cuentas Anuales del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euzkadi 2007, Eustat, Presupuesto realizado 2007 (Gobierno de Navarra), IEN

## Gogoetarako gaiak

- ¿Es casualidad que se apliquen las mismas medidas de ajuste y recortes en todos los Estados europeos? ¿A quién benefician estas políticas?
- Zerk eragin du defizita? Gehiegi gastatzen al dute Hego Euskal Herriko administrazioek? Edo arazoa diru sarreretan dago?
- ¿Están cubiertas las necesidades de los y las más débiles? ¿Es la calidad de los servicios públicos buena? ¿Va a mejor o a peor? ¿Quién se beneficia de un sistema público débil?

## Otros documentos adjuntos

- El modelo inglés, José Ignacio Lacasta
- Austeritatea politikarientzat pribatizatzea da, Izaskun Garikano

## Irakurgai interesgarriak

- Azterketak 24: Valoración de los Proyectos de Presupuesto para 2011 del GV y del GN. MRA Institutua, 2010eko azaroa. (<http://www.mrafundazioa.org/dokumentazio-zentrua/azterketak>)

# El modelo inglés

José Ignacio Lacasta

*Diario de Noticias 2010/11/05*

El Plan Moderna del Gobierno de Navarra y voces de la CEOE han introducido una idea que goza del respaldo de amplias capas de la sociedad. Que los funcionarios no lo sean, que dependa su sueldo de la productividad, que se acabe con el carácter vitalicio de su empleo, etcétera.

En algunos funcionarios ya depende su salario de la productividad. Eso y no otra cosa son los tramos o sexenios de investigación a los que aspira todo profesor universitario; los cuales son cribados en detalle por una agencia evaluadora estatal. Si bien su resultado debería ir a parar al sueldo básico y no computarse en concepto de complemento como hoy se hace. Por lo mismo, cuando se hable del condicionamiento de lo que se percibe a los resultados productivos, debería tenerse en cuenta que el mismo ya se efectúa en amplias zonas de la Administración pública.

[...] dado que todos los trabajos públicos y privados deberían ser permanentes, así como que el problema de la precariedad es endémico en la economía española, el asunto no se resuelve con la creación de más puestos precarios o provisionales, sino con el fomento de los estables, lo mismo en la empresa privada que en las organizaciones públicas.

[...] Seriamente, las cosas no se arreglan, y en una crisis menos, con la supresión de lo que está bien -el trabajo fijo garantizado- y su sustitución por lo que está mal (paro u ocupación transitoria), sino a la inversa.

Luego se ha extendido también el mito del exceso de funcionarios. Javier Vizcaíno dice en este periódico (27.10.10) que: "Es cuestión de tiempo que salte ese cerrojo". Naturalmente, muchos cargos de confianza, asesores internos y externos, los nombrados a dedo y, en fin, los numerosos tresmieuristas -de los que suele hablar Eduardo Lacasta- del régimen político UPN/PSN, sobran a no dudar. Pero, ¿es ésa la realidad de la Administración?

Vizcaíno tiene en la cabeza un modelo de funcionario que es el que posee mucha gente: el antipático titular de una ventanilla donde -asevera este periodista- "siempre te faltan dos fotocopias compulsadas". Yo le propongo que se informe algo mejor; que visite la sala de urgencias de cualquier hospital público, donde faltan medios, camas, personal y, sin embargo, los allí empleados atienden a los pacientes con una competencia, aguante y afecto que parece que vengan de otro mundo. Se trata de trabajadores, enfermeras, MIR, a quienes les han reducido recientemente el sueldo y encima les exigimos la mejor de las caras -la que ponen- en el desempeño de su fenomenal labor.

¡Pero si resulta que faltan funcionarios y funcionarias! Desde luego en la sanidad pública, donde hay listas de espera, se reducen en cambio las plantillas y las salas de cirugía (en Madrid notoriamente) y, con la cansina excusa del déficit público, en algunos hospitales se ha llegado a suprimir hasta la merienda de los pacientes por falta de personal para servirlos. [...]

¿Y qué decir de esas decenas de miles de personas que se han quedado sin poder matricularse en Formación Profesional? Si esos estudios son una palanca decisiva para cualquier economía, si el ministro del ramo así lo dice, ¿cómo admitir que hay insuficiente profesorado para que eso suceda? En esta vida -y en el déficit público- hay prioridades, y la restricción en los estudios, la falla estructural en la formación, nos cuesta y costará muy cara por no saber mirar a largo plazo. No hay suficientes profesores y profesoras de Secundaria ni de FP, y ahí tienen también su responsabilidad las comunidades autónomas. Pero tampoco se ha de admitir que al Ministerio de Educación se le adjudique exactamente el mismo recorte presupuestario que al de Defensa. Amigos del PNV, que habéis dado el visto bueno a estos presupuestos de Zapatero, ¿no habéis leído aquello de Paul A. Samuelson sobre los cañones y la mantequilla? Porque, a más gasto en cañones, menos inversión en políticas sociales de todo tipo y pensiones más escuálidas.

Y valgan ya estos ejemplos, porque la cruda estadística nos dice que más de la mitad de los funcionarios y funcionarias desempeñan sus labores en la educación y en la sanidad pública. Entonces, dejemos bien claro que se habla en realidad de la destrucción del Estado social o de bienestar y no de otras cosas.

Finalmente, Javier Vizcaíno se ha acogido al modelo inglés. Al recorte de 500.000 funcionarios y la elevación de oraciones a Adam Smith para que su mano invisible o iniciativa privada resucite la anémica economía británica. Acción que este periodista llama modelo de realismo y el Premio Nobel de Economía Paul Krugman califica como disparate. Porque, si hay paro, ¿cómo calificar esa demolición de medio millón de empleos y su inmediata consecuencia negativa en la demanda y el consumo?

Me caen bien y me divierten los escritos y programas de Vizcaíno; pero con esto de los funcionarios e Inglaterra ha venido a coincidir exactamente con el proyecto explícito de Mariano Rajoy. Así que Javier, con lo bien que criticas los esperpentos de la derecha carpetovetónica, no caigas en sus peligrosos topicazos, por favor.

# Austeritatea politikarientzat pribatizatea da

## Izaskun Garikano

Deia 2010/11/07

Duela egun batzuk Paul Krugman Princetongo ekonomia irakasle eta Ekonomiako Nobel saridunak artikulu batean Britainia Handiko gobernuaren austeritate plana aztertu zuen; plan honen ondorioz arlo publikoan 500.000 lanpostu deuseztatu nahi dituzte. "Plan hau beharko lukeen kontrako norabidean doa erabat. Zergatik egiten du hau gobernu britainiarrak? Benetako arrazoia ideologian datza: kontserbadoreek defizitaren aitzakia erabiltzen dute ongizate-estatua murrizteko", dio Krugmanek. [...]

Joera berbera hartu dute Hego Euskal Herriko gobernuak. Lehenik soldatak murriztu zituzten; hau omen zen egin beharreko ekarpena, arlo pribatuan luzaz pairatzen ari ziren krisi egoera zela eta. Gero plantillak murrizten hasi ziren, plazak amortizatuz eta ordezkapenak zeharo gutxituz, bai EAEn, bai Nafarroan. Aurretik ere plantillak urriak ziren, eta eguneroko lanari ia aurre egin ezinean zeuden, batik bat osasungintzan eta irakaskun-tzan; honek langileak mobilizatzea eraman ditu. Erabakiok krisiaren aitzakiaz hartu ziren, baina argi dago ez dutela egoera hobetuko. Zergatik hartzen dituzte, orduan? Muturreko ideologia kapitalistaren fruitu direlako, eta honen helburua, zerbitzu publikoen zatirik handiena esku pribatuetan uztea.

Honen adibide dugu Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoko sailburuordearen bitartez bere arloko langileen kontra egin nahi duen gurutzada. Eurek sinatu zuten Mahai Orokorreko akordioa, eta eurek hautsi zuten 5 hilabetera, soldatak jaitsi eta enplegu publikoa deuseztatuz. Orain beste zerbaitekin hasi dira, absentismoarekin. Datuak manipulatu egiten dituzte: absentismoa %10ekoa dela diote, baina gure datuen arabera benetan ez da %6ra iristen (gaixotasun, istripu edota amatasun bajak). Sailburuordeak langile publikoei buruz hitz egiten duenean hauek tranpatan ari direla dirudi: "legezko itxura duten sasi-baja ugari hartzen dituzte, abusu ugari ezkutatu". Horrelakoak esanda iraindu egiten dituzte egunez egun gogor lan egiten duten behargin hauek, baldintza gaitzetan ari baitira (bitarteko urriak, planifikazio eza eta era guztietako murrizketak medio).

Baina honek ez du axola, mezu faltsu hori - "funtzionarioak pribilegiatuak dira, garestiak eta langile txarrak; desagertu egin behar dute"- piskanaka finkatu egiten baita gizartean, erregulazio espedienteak, kaleratzen mehatxua edota erreforma laboral basatia jasaten duen jendearengan.

Nafarroan ere arlo publikoan antzeko zerbaite gertatzen da. Moderna Plana dugu gizarte elkarriketaren azken "produktua". Sinatzaileak: UPN

eta PSN, Opus Dei, UGT eta CCOO. Hauen asmoa argia da, politika publiko jakin batzuren kudeaketa esku pribatuetan jartzea. Planak 2030. urteko Nafarroa marrazten du, eta hori gauzatzeko fundazio pribatu bat sortu dute, diru publikoz lagunduta. Moderna Planak, besteak beste, funtzio publikoaren izaera bera aldatu nahi du, eta "funtzionarioak bizi arteko izatea" galarazi.

ELAk bere Azterketa Bulegoaren txostenean hau jakitera eman zuenean polemika piztu zen, eta Cernin Martinez Nafarroako Gobernuko ekonomi-politika eta sustapeneko zuzendariak esan zuenez, "esaldi hori hankasartzea izan da", baina halere "administrazioa errotik erreformatu beharra" dagoela ere gehitu zuen, eta galdera bota: "zergatik izan behar du lanpostu batek bizi arteko zerbaite, guztion zergekin ordainduta?" Dena dela, zioen Martinezek, "horrek ez du esan nahi berehala egingo denik; lanpostuen izaerari buruz hartzen diren erabakiek ez diete egungo funtzionarioei eragingo". Harritzekoa da zenbateko antza duten hitz hauek CEOEko buruzagi batzuk botatakoekin, hauek "funtzionario berriei enpresa pribatuan ohikoa den egonkortasuna aplikatzea" eskatzen baitute; berdin da osasun sisteman, irakaskuntzan, diru-laguntza, beka edota baimenak emateko lan egiten duten. Baina gogoratu beharra dago funtzionarioen lanpostua finkoa bada, berme bat izateko dela: arlo publikoari dagozkion gaiak askatasunez ebazteko segurtasuna, hots, interes politikoen menpe ez egotea. Honen guztiaren jatorrian Hego Euskal Herriko gobernuen ideologia kontserbadorea dago. Hauek krisia aitzakiatzat erabiltzen dute eta arlo publikoaren irudia zikindu nahi dute, herritarrak langile hauen kontra jarri eta gero pribatizatu ahal izateko. Arlo publikoa erabat murriztuta, zerbitzuak emateko beharrak iraungo du, baina horiek pribatizatu eta azpikontraten bidez eskainiko dira; ondorioz, hauek ematen dituzten beharginen lan-baldintzak eta zerbitzuak berak okertu egingo dira.

Honelako etorkizuna ari dira taxutzen interes pribatuak eta hauen ordezkari gisa jokatzeko duten politikariak. Baina ez zaie erraza gertatuko. Arlo publikoko milaka eta milaka langile greba egin genuen maiatzaren 25ean, baita Hego Euskal Herrian ekainaren 29an deitu zen greba orokorra ere. Europan zehar gauza bat nabarmen ikusten da: erasoari aurre egiteko bide bakarra mobilizatzea da. Arlo publikoko zenbait langilek uste du "oraindik ez datoz nire kontra". Horiei mezu bat eman nahi diegu: mobilizatu beharra dago, nork bere esparruan ahal duen neurrian, bestela "nire bila datozenen bakarrik egongo bainaiz".